

**Erdi Mailako
Lanbide
Heziketa**

Nekazaritza

Nekazaritza eta abeltzaintzako Produkzioko teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza**

**El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du**

Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioko teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Belarkien laborantza

- Lurra prestatzeko eta belarki-laboreak erein eta/edo birlandatzeko lanak egitea.
- Belarki-laboreak landu, bildu, garraiatu eta biltegitratzeko eragiketak egitea.
- Izurriak, gaixotasunak, belar gaiztoak eta fisiopatiak kontrolatzea.
- Traktoreak erabiltzea eta nekazaritzako instalazioak muntatzea, eta horien mantentze lanak egitea.

Frutagintza

- Lurra prestatzeko eta fruta-arbolak landatzeko lanak egitea.
- Fruta landu, bildu, garraiatu eta lehen egokitzapena egiteko eragiketak egitea.
- Izurriak, gaixotasunak, belar gaiztoak eta fisiopatiak kontrolatzea.
- Traktoreak erabiltzea eta nekazaritzako instalazioak muntatzea, eta horien mantentze lanak egitea.

Baratzezaintza eta loregintza

- Lurra prestatzeko eta erein eta/edo birlandatzeko lanak egitea baratzezaintzan eta mozteko loreen hazkuntzan.
- Laboreak landu, bildu, garraiatu eta biltegitratzeko eragiketak egitea baratzezaintzan eta mozteko loreen hazkuntzan.

- Izurriak, gaixotasunak, belar gaiztoak eta fisiopatiak kontrolatzea.
- Traktoreak erabiltzea eta nekazaritzako instalazioak muntatzea, eta horien mantentze lanak egitea.

Hausnarkarien produkzio intentsiboa

- Berritzeko abereak, ugaltzaileak, esneko hausnarkariak eta esnea ekoiztea.
- Aurrerako eta gizentzeko hausnarkariak ekoiztea, haragitarako.
- Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makinak eta ekipamenduak muntatzea eta mantentzea.

Hegazi- eta untxi-produkzio intentsiboa

- Ugaltzeko, haragitarako eta arrautzatarako hegaztiak ekoiztea.
- Ugaltzeko eta haragitarako untxiak ekoiztea.
- Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makineria eta ekipamenduak muntatzea eta mantentzea.

Txerri-produkzio intentsiboa

- Berritzeko txerri emeak, ugaltzaileak eta esneko txerrikumeak ekoizteko eragiketak egitea (1. fasea).
- Aurrerako eta gizentzeko txerriak ekoizteko eragiketak egitea (2. eta 3. faseak).
- Abeltzaintzako ustiategiko instalazioak, makineria eta ekipamenduak muntatzea eta mantentzea.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional

Nekazaritza

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek nekazaritzako edota abeltzaintzako enpresa publiko zein pribatuetan egiten du lan, besteren kontura edo bere kabuz. Nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean aritzen da, hain zuzen ere produkzio jarduera hauetan: fruta ustiategiak; baratzezaintzako eta belarkien laborantzako ustiategiak; abere ustiategiak; laboreen eta abeltzaintzako produkzioaren ikerketa eta saiakuntzarako erakundeak; nekazaritza eta abeltzaintzaren zerbitzuko enpresak; eskoletako mintegi eta baratzeak; baserri-eskolak eta natur gelak.

Hauetara dira jarduera eta lanpostu aipagarrienak:

- Laborantzako eta abeltzaintzako langile kualifikatua, besteren konturakoa.
- Laborantzako eta abeltzaintzako langile kualifikatua, bere konturakoa.
- Nekazaria.
- Baratzezaina.
- Frutagilea.
- Mintegizaina.
- Lorezaina.
- Azienda-hazlea.
- Hegatizaina.
- Erlezaina.
- Esne-ekoizlea.
- Arrautza-ekoizlea.
- Nekazaritzako eta abeltzaintzako makinetako operadorea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Agronomiaren oinarriak.
- Zootejniaren oinarriak.
- Lantegia eta trakzio-ekipamenduak.
- Nekazaritzako azpiegiturak eta instalazioak.
- Landare-osasuneko printzipioak.
- Enpresa eta ekimena.
- Nekazaritzako produkzioa I / II.
- Laboreen ezarpena.
- Esnearen, arrautzen eta bizitarako abereen produkzioa.
- Haragi produkzioa eta abeltzaintzako beste produkzio batzuk.
- Kontrol fitosanitarioa.
- Lanerako prestakuntza eta orientazioa.
- Lantokietako prestakuntza.